

BATZARRAK, BIZKAIKO FORUAK, GERNIKAKO BATZARRAK ETA EUSKEREA

Lino AKESOLO

Aspaldiko amesa lorturik dakusgu gaur. Bizkaiko Forua Bizkaiko se-meen izkuntza jatorrera aldatuta daukagu. Amesa aspaldikoa izan da, izan be, ez atzo goizekoa ez gure egunotan sortua, Foruak oso ta bizi zirauen egunetako baiño. Orain berrogei ta amasei bat urte, 1826-ko martiaren lenean, Paulo Ulibarririk gutun bat, karta bat bialdu eutson Abandorik Zarautzera Bilboko seme bati, Aita Zabala frantziskotarrari, iru eskabide egiñez: Euskal-gramatika bat idaztea, euskera - erdera ta erdera - euskerazkoa, iztegia Aita Zabalak ordurako eginda euskalakoa, ateratea, eta Bizkaiko Forua euskerara biurtzea. Erantzuna ezin izan Ulibarriri pozik emotekoa: ezezko biribilla. Aita Zabalak ez eban bere burua orrenbesteko lanik egiteko gai ikusten. Berau gora bera, ordurarteko gramatika eta iztegiak, Aita Larramendirenak, euren indar guztian jarraituko eben, eta Forua Zabala beraren itzez esateko, eta au ezan, aurki, Abandoko abere sendatzaillerari miñik txikiena emongo eutsana, «Forua erderaz geldituko da».

Agur, Ulibarriren amesak, Bizkaiko Forua erderaz geldituko zan, bai, oraindiño, gaur arte, gure egunotararte. Zabala bilbotarrak bere egunetan ezintzat edo alperrekotzat egin barik itxi eban lana, aramaioar batek burutu dau gaur, eta Bizkaiko Forua euskeraratuta daukagu.

Jazoera gogoangarri au dala-ta, itaunik asko sortu leiteke euskaldun baten gogoan: orain egin dana zergaitik ez zan lenago egin? Zergaitik Forua euskeraratu bearra edo euskeraratu naia bera? Zergaitik ez zan Bizkaiko Legea euskeraz egiñik, euskeraz sortuta agertu? Antziñako bizkaitarrak euren izkuntza ez ete eben aintzat artzen, ezetako baliobakotzat ete euken? Edo beintzat, euren artu-emonetan, euren batzarretan ez ete eutsoezan ateak itxi euren jatorrizko izkuntzari?.

Itaunok askoren gogoetan sortzen eta askoren miñetan entzuten diran itaunak dirala uste dot, eta neure egiñalean euroi zelanbaiteko erantzuna emon nai neuskioe lantxo onetan.

Itaunai erantzuten.

Lenengo itauna: euskaldun izanik, zergaitik ez eben bizkaitarrak euren legea euskeraz idatzi lenengo-lenengotarik?

Itaun oni lenengoko erantzuna emoteko, geure ingurura begiratzea eskatuko neuke nik. Inguruan Bizkaitarrak Euskalerra osoa euken, gaiñerako Euskalerra guztia, Arabatik asi ta Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa aldeetaraino. Eta zer da ikusten dabena? Euskalerra guztiko legeak alde bateko edo besteko erromantzez, erdal - izkuntzaz idatzirik dagozala. Bizkaiaik or eukan eredu, eta bere legeak idazterakoan ereduari jarraitu besterik ez eban egin.

Bigarren erantzuna: Bizkaiko Forua ez da beren beregi eta beste asmo barik bizkaitarrentzat egiña edo idatzia, idatzi bako legepean bizi izan zan Bizkaia luzaro: alkartean erabagitako legepean, oitura utsez eta belaunez belaur gorde eta zaintzen eben legepean. Eta azken baten, lege ori idatzi, zergaitik egin zan, eta norentzat? Batez be, Bizkaiko Jaunaren auzitegiatarako, Bizkaian naiz Bizkaitik kanpo, Bizkaiko semeen auziak erabagi bear ebezan lege-gizon eta epaikariak emengo lege, oitura eta eskubideen jakitun ipinteko. Bizkaiko Jauna bera erdaldun, eta erdaldun aren agintepoko epaikariak geienetan, batez be, kanpoerrietakoak. Bizkaiko lege eta bizkaitarren eskubideak arein eskuetan ipinteko, zein izkuntzatarra joko eben erderazkora baiño?

Bizkaiko legeak, emengotarren eskubideak bertokoen buruetan euskeraz bizi ziran, euskerazko izena eben. Foruan bertan daukagu onen argibidea. Erderaz idatzia izanda be, Foruan itz batzuk euskeraz gelditu dira. Gauza bera ikusten dogu Nafarroako Foruan be. Ainbat itz euskera utsean itxi bearra izan eben. Baiña, alango baten, oiturazko legeak paperera aldatu bearra ikusi zanean, guztientzat etorri zan ondo liburutan argitaratu eta idatzirik eukitea. Idatzita, legeak sendotasun eta ziurtasun andiagoa artzen eben. Bizkaiko Jaunaren auzietarako premiñazkotzat ikusi eben ori, eta premiña guztizkotzat erderaz egotea, epaikarien izkuntzan ain zuzen. Bizkaiko Forua erderaz idatzia izatea, ezta olan bapere arritzekoa. Oso ulergarri egiten jaku. Eta eztaigun aitzu Foru-liburuan ez zirala Bizkaiko lege guztiak sartu, liburu orrek eztauala bizkaitarren erri-bizitza guztia artzen, eta gero be oiturazko legetzat jarraitu ebela Bizkaiko lege askok, garrantzirik andienetakoak eurok, esaterako Gernikako Batzarretako gorabera eta aginpidea.

Baiña, ain zuzen, Gernikako Batzarretan ez ete zan, bada agertu, Bizkaitarren zabarkeria euren izkuntzaren alderako? Ez ete da egia euskerearen eskubideak batzar nausi areitan zapalduta gelditu zirala, an batzarkide izateko erdereza jakin bear zala?.

Salakuntza gogortxo au egin izan da askotan gure antziñako bizkaitarrentzat. Gernikako batzarretan euskerea baztertuta, galazota egoala, erdera

ez ekianak an sartzerik ez eukala. Erri bakoiteko batzarretan ezta iñok usteko erri-izkuntza erabilliko etzanik, euskeraz egingo etzanik. Baiña Gernikako, Bizkai osoko Batzar nausietan? Askotan aitatu deuskue an bi edo iru aldiz jazorikoa: erri batzuetako ordezkariai (zortzi amar bat guztiz), ukatu egin eutsela batzarkide izateko eskubidea, edo ta kanpora bota ebezala erderarik ez jakitearren. Egia ete da gero ori? Olako zerbait jazo zan, bai, korrejidorearen aginduz eta erabagiz, batez be 1624-tik 1627 aldera. Baiña dana esan bear da. Gauzak zeaztu bearra dago. Ezeben iñor batzarretik kanpora atera, erdera ez jakitearren bakarrik; orrez gaiñera, edo orren aurretik, ez idazten ez irakurten ez ekielako baiño: «por no saber y escribir y hablar romance». Alan diñoeg agiri batzuk, gogorren itz egiten dabenean. Beste batzuetan bigunago: «por no saber leer y escribir», euskerea aitatu barik. Barzuetan iru salakuntzok (irakurten, idazten eta erderaz ez jakitea) iru pekatutzakook batera datoz batzar agiritan. Idazten eta irakurten jakin arren, pekatutzat ete egoan erderarik ez jakitea? Ori ezta ain argi ikusten. Geroagoko batzar-agiri batzuk diñoena ikakurri ondoren, ezezko erantzuna emon bear ko dogu.

Gernikako batzarkideak askotan gogoratzen dabe, ara agertzeko, erriak ordezkariarik egokienak, atarako gaien diranak bialdu bear dabezala. Edozein errientzat lotsagarri izan bear eskola bako utsak, analfabeto utsak bialtzea. Baiña erderarik ez ekienak, edo gitxi ekienak askotan agertzen ziran Gernikan. Eta Errejidorea, Erregearen ordezkoa, aurrean zala erdera erabiltzea berezkoa zan arren, askotan esaten dauskue batzar-agiriak, erderarik ez ekientzat edo gitxi ekientzat eztabaida-gaiak euskeraz be argitu zirala. Batzuetan, batzarkideak eurak deadar baten eskatuta. Olan irakurten dogu 1631-lo batzar baten.

Batzar-agiriak eztabe askotan zeaztasun edo zertzelada andirik emoten. Baiña noizik bein argi-bitartetxo bat isten deuskue. Olangoxe argi-bitartetxoak aurkitzen doguz 1631, 1633, 1688, 1695, 1760, 1762 garren urteetako batzar-agirietan. Erderarik ez ekien argibiderako, euskeraz azaltzen dira erabagi bear diran gaiak. Erdera ez jakitea ez da eragozpide batzarkide izateko.

Gernikako batzarrak nazioarteko batzarren antzeko zirala esan geinke. Erbesteko bat euken buru, Bizkaiko Jaunaren ordezkaria, Korrejidora. Aren aurrean, eta bizkaitarrak eurak be guztiak euskaldun ez izanik, ulergarri da an erdera erabilli bear ko zala. Dana ezpazan be, geiena bai. Baiña, alan nai olan be, euskerea ez egoan baztertuta, gitxiago galazota. Errejidore erdeldunak ez eben orrenbeste lortu. Bizkaiko semeak be ez eben euren euskalduntasuna orrenbestera iño ukatu.

Euskerarentzat ateak gero ta zabalago.

Gernikako batzarretan gero ta geiago agertzen jaku Bizkaiko semeen euskalzaletasuna, euren izkuntzari eutsoen etsigitasuna, XIX garren gizalditik

edo mendetik asita. Gizaldi onen asieran, 1804ko batzar-agirietan daukagu onen argibide bat. An irakurri geinke, Zamakola arratiarrak ordu betetik gorako itzaldia egin ebala euskeraz erdere a ulertzen ez eben batzarkideentzat. Bizkaitarrak ba-ekien euskerearen eskubideai eusten. Euren Foruak, euren legea, arriskuan ikusteak euskalzaleago egin zituela esan geinke.

Olan, 1833garren urtean Bizkaiko Batzar nausietan euskerea erabiltea legetzat ipinteraiño ez ziran gelditu. Urte batzuk lenagotik Abandoko albeiterak, aberesendatzailleak, Yose Paulo Ulibarrik, gogor ekin eutson orretarako giroa berotzen. Alan, 1833ko batzar baten, orlistak kalera eta mendira urten baiño lenagoko batzar baten, orixe erabagi zan, eguneroko batzarrak erderaz asi bai, baiña euskeraz jarraitzeko legea jarri eben. Korrejidorearen itzaldia bera, erderaz egiña euskerara itzulita entzuteko erea izan eben, eta euskereaz argitaratuta ikusi. Arrezkero euskereak zor jakozan eskubide osoak lortu ebazan Bizkaiko semeen Batzar Nausian, Gernikan.

Bergarako Besarkadearen ondoren eskubideok lege-indarrean jarraitzen dabe. Batzarreko arauak barriztau egiten dira eta euskereak egunero bere leku bete a izango dau. Batzar-agiriak egunero irakurten dira bai erderaz eta bai euskeraz, eta gai guztiak izkuntza bietan azaltzen dira. Alan iñoan arauak (1833koak eta 1841koak): erderaz emongo jakola asierea batzarreko gaiak azaltzeari, eta euskeraz jarraitu, zala. Eta batzar-agiriak alan egiten zala jakitun ipinten gaitue. Eta ez beti txandaka, lenengo erderaz eta gero euskeraz. Bein baiño geiagotan, batzuk euskeraz eta beste batzuk erderaz, euskera-erderazko eztabaida biziak sortzen ei-ziran. Korrejidorearen asierako itzaldiak eurak be, egunean berean ezpazan, urrengo egunean, euskeraturik irakurten ziran, eta or daukaguz itzaldiotako asko batzar-agirietan argitaratuta. Bein jazo zan, Korrejidorean itzaldi gangartxo bati, an bertan batzarkideak erantzun gogorra emotea, eta euskeraz emon be. Ez eutsen bada bizkaitarrai onako itaun asmo txarreko au zuzendu: «Madrilgo gobernua 30.000 eta 40.000 milla armagizon bialduko balitu, zeuon lege ta eskubideak aldatzeko asmoz, zuok zer egingo zeunkie? «Bakeak egin barritan (1941n zan), ez zan politiko zmtzundun batek egiteko itaun egokia, benetan. Baiña zer entzuten dau bizkaigarren agotik»: Guk, euki». Kartetan ordagoka edo enbidoka datorren jokalaria emoten jakon erantzuna. Olan irakurten da urte arako batzar agirietan. Gizon areik ez egozan iñoren aurrean buruak beingoan makurtuteko. Korrejidorearen aurrean euskeraz egitea, aren eupadadari olan euskeraz erantzutea eta aren itzaldiak euskeraturaz euskeraz irakurrerazo eta agitararazotea, etzan, ez, aurrerakada makala, eta eztau euskal-giro epela erakusten.

Euskeratzailleak.

Euskereari zor jakon lekua emote onek Gernikako Batzarretako gizonentzat bere lorra ekarri ebala esan bearrrik eztago. Norbaitek artu bear eban bere gaiñ neke ori. Eta gizon areik ez ebenizan iñora, kanpora joan bearrrik

itzultzaille billa. Barruan, euren artean aurkitu eben dana. Eta ez edozela be bete egiteko ori. Bein, an erdereraz entzundako itzaldi bat antxe bertan euskeraz jarrea eskatu eutsen bati. Eta ori iñondik iñora be ez. Astitxoia eskatu eban erderazko itzak ondo aitu eta euskerazko egokienak billatzeko. Eta urrengo batzarrean irakurri zan euskerara itzulita. Aitamen berezia zor jakola uste dot itzultze-lan onetan geien nekatu zan bati, Manuel Barandika, Batzarretako idazkariari. Il zan arte, 1856garrenerarte zintzo artu eban arazo ori. Bere egitekoa izan zan eguneroko agiriak euskeratzea eta urrengo egunean irakurtea. Baiña, au ilda gero be, azkenengo batzarretararte, agirietako leloa betikoa da: egunero emoten jakola euskereari bere lekua, araudian erabagita egoan lez. Eta itzaldirik garrantzitsuenak batzar-agirietan aurkitzen doguz euskerara itzulita, inprentaz argitaraturik. Inprentaz argiaratutako itzaldiotarako bako-rik badirudi kanpokoen laguntza eskatu ebela, euskera txukuntxoagoz, egitearren, antza. Nori? J. A. Uriarte, aita frantziskotarrari. Barruko itzulpenetarako, egunerokoetarako, batzarkideak ez eben kanpokoen laguntzarik bear.

Guzti ori egiten zan, barriz, alkartasunik onenean, iñoren mukerkeririk edo betozko illunik agertzen etzala, euskeraren alderako maitasun eta gogo-zabaltasun osoaz, euren izkuntza jatorrari egokion eskubidea zalako uste betean. Eta, gaiñera, euskerazko itzalariari itzal eta begirune guztizkoa erakusten eutsela. Gernikako batzarkide urte luzetan izandakoa zan Arrieta Maskarua, eta onelango aitorpena itxi deusku: «Bein baiño geiagotan ikusi ebala olango itzlari euskaldunik, itxura apalekoa eta, bizkaitar jatorra lez, berbaz urritxoia izan arren, batzar-gizonak bere eritxira ekarten, jakituntzat egozan beste erdera dotoredunen gaiñetik». Eta, agiri danez, eta au ezta gauza utsa, eta bai gogoangarria, izlari euskaldunak ez eben an bapateko itzultzailerrik edo bear. Euskera ulertzen ez ebanik bazan, aurki, batzar areitan; baiña argitasunik bear ebanak alboan edo aurkituko eban itzen mamia azalduko eutsanik be. Orain eundaka urte gaur baiño egoera ohea eukan euskereak bizkaitarren artean.

Esanak esanik, asierako itaunak ase ta betean erantzunda gelditzen dirala uste dot. Argi dago Bizkaia ez tala zabal ibilli bere euskalduntasuna autortzen, berea dauan euskerearen eskubideak zaintzen. Eta (esaten ausartuko ete naz?), beste Euskalerrietan baiño obeto. Non egin da beste ainbeste? Bizkaia, onetan be, beste gauza askotan lez, aurrelari agertzen jaku.

Orain Forua euskeraz.

Eta aurrelari agertzen da gaur, gure egunotan, Bizkaiko Forua plazara euskeraz ateratean. Bizkaiko Forua dator, beintzat, lenen argitara euskeraz. Zergaitik Bizkaikoa? Bear bada, Bizkaiko Foruan dagozalako argi ta garbien euskaldunen nortasuna zeatzen adierazoten daben odolgarbitasuna, bardintasuna, aitoronsemetasuna eta prestutasuna. Foru orretan aurkitzen diralako

giza eskubideak ondoen zeaztu eta gordeta. Orregaitik edo artu dau bizkaitar eztan batek Foru au euskerara itzultzeko asmoa. Olan, Bizkaiko Forua napar baten eskutik dator, eta arabar baten lumatik. Eztago emen zeri arritu. Iparragirren kantua zabaldu zan ezkeru, Euskalerrri osoa dago Gernikara eta Bizkaira begira Bidasoaz onuzko Euskalerrria, laurak batean, ipiñi zituan Iparragirrek Gernikako Arbolaren inguruan kantari:

*«Etzera eroriko,
Arbola maitea...
Laurok artuko degu
zukekin partea,
pakean bizi dedin
euskaldun jentea».*

Lau Euskalerrriok parte artu dabela esango neuke, liburu au ateraten. Arabar batek egin dau itzultze-lana. Ezta Gernikako batzarrerako eskubidea eukenetakoa, baiña bai foruz bizkaikoa. Liburuan bertan irakurtea besterik eztaukagu: Bizkaiko Foruari azken-ikutua, an 1526n egin eutsenean, nor da Gernikako arexpea atan bizkaitarrakaz batera batzarreratu, eta Forua barriztetako erabagia artu ebenen artean lenengo aitutzen dan jauna? Muxika eta Butrongo Don Joan Alonso, Aramaioko Jauna.

Foru onen euskeratzailea, Pedro Pujana abade jauna, Bizkaian bere etxean dago eta Bizkaiko Forua bere-berea dau. Lan oni ekitean, ez dau bere legezko jaioterria ukatu. Puxana jauna Bizkaiko euskeraren jabe da, euskera au erabilten benetan maisutzat dago. Eta orra zergaitik egin dauan itzulpen au bere-bera dauan euskerara, antziñatean, guztiz antziña be ezala, Arabako lurralde zabalagoetan entzuten zan euskerara, eta gaur Araban euskereak bizirik dirauan errietan entzuten danera.

Bizkaiko euskerea ez da, gaiñera, bizkaitarrena eta arabarrena bakarrik. Gipuzkoako erri mordo bateraiño zabaldua dago. Gaurko egunotan euskaldun guztien artetik euneko berrogeik Bizkaiko euskerea ei darabil. Eta bera ilgo baledi, edo il bagengi, ez uste beste euskera obe batek beteko leukela aren utsunea; erdereak, bai, beteko leuke. Pujana jaunak ezteutso olango zoritxarrik opa Bizkaiari ez bere euskereari, ez Euskalerrriari. Guztiontzat kaltegarri baiño ez litzakela izango badaki. Orregatik ez da lotsa izan Bizkaiereari eusten. Eta gaur adorea bear da orretarako. Areriorik txarrenak Euskalerrri barruan agertu jakoz gaur Bizkaiko euskereari. Gure euskeratzailea ez dau iñok ez ezek ikaratu ez atzeratu. Eta bere euskeran, Bizkaikoan, egin dau bere lana. Bizkaiko euskeran, baiña gure egunotakoan.

Bizkaitarrak euren legeak lenengoz paperera aldatzean, orduan euren agotan erabilten euskeran egin balebe, egia da orduko itz eta esaera asko agertuko zirala Foru-liburu onetan. Orain galduak doguzan itz zar asko sartuko ebezala: egorrotxi, erri-egorrotxi ta olango asko. Erderazko Foruan

sartu ziran euskal-itz batzuen esan-naia be obeto uletuko genduan, esaterako, abeurrea, bidigaza eta abar. Naparroako Forua dogu euskal-itzez aberatsena, batez be zerga-izenetan. Pujanak berba zar batzuk euren zarrean itxi ditu, eta barriak billatu bear izan dituenen, zur ibilli da ta eztau bide txarra artu. Bat aitatzearren, orra *auzo-lurra*. Gaur be, *auzo-lur* ezpada, antzekoa esaten jako leku askotan: *oilla-lur*, guztientzat dagoan etxe-aurretako lurra.

Itzulpen onetako euskerea gaurko bizkaierera dala, oker andirik egiteko bildur barik esan daigun joan dan gizaldian Gernikako batzarretan entzuten zanarenetik urrin eztabillena dala. Aita Zabala frantziskotarrak, Ulibarrik eskatu eutsonean, egin izan baleu, ez eban oberik egingo.

Asieran esan dodanez, Paulo Ulibarri arabarraren eskabideari ezetza emonez, Aita Zabala bilbotarrak egin barik itxi ebana gaur euskal-kulturaren alorrean ain kementsu diarduan napar baten eskabidez, Estornes Lasa baten eragite, Bizkaiko Forupeko arabar batek egin deusku, eta olan antziñako bizkaitarren gogo eta gizabidearen ispillu dana euskal-soiñekoz estalirik eskiñi. Opari eder balio andikoa eskiñi deuskue. Eurentzat euskaldun guztien, eta batez be bizkaiko semeen txaloak eta eskerrona.